

Poliziaren beldur



JUNE FERNÁNDEZ
KAZETARIA

Josebaren ama minbiziz hil egin da. Dolua are eta tristeagoa da itxialdi egoeran, konpainia eskasarekin, bescarkada gutxirekin. Joseba aitari bisita egitera joan da eta klandestinitatean nerbioak sentitu ditut bidean.

Okindegiaren ilaran entzun dut andre bat besteari esaten baserritik kotxez eta ez oinez jaisten dela orain. Bidea barkartia izan arren, beldurra ematen dio poliziak ez sinestea erosketak egitera doala eta ez paseatzera.

Leirek hamar urte ditu. Noizbehinka txakurra ateratzera animatu dute bere amek, baina joan zen azken egunean ez zen eroso sentitu. Auzokoen bigilantzia eta epaia nabaritu omen zuen.

Albak jaioberri bat du. Gau neketsu baten biharamunean, paseatzeko behar psikologiko handia zuen. Belaze eta ortuen arteko bide bakarti bat aukeratu zuen. Ehun metro ibili eta buelta eman zuen, erruak jota. Bere baitako poliziak geldiarazi zuen.

Auzoko familia bat arratsaldero ateratzen da gure kalera baloiarekin jolastera. Balkoiko zelatariak izan nahi ez dugun arren, disimuluan begiratzen ditugu, gaitzespenez eta baita inbidiaz ere. J. Marcosek zerrendatu ditu *Pikara*

Magazin-en “pandemia kapitalistak” utzi dituen biktima politikoak: besteak beste, “intsumisoak, errebeldeak, lotsagabeak”.

Alabaren tronaren bila joan behar izan dut *Pikara*-ren erredakziora, herri-tik Bilbora. Lankideen oparia da, baina ekarri behar ziguten egunean agindu zuen Espainiako Gobernuak alarma egoera. Dekretuaren arabera zilegi da mendeko baten zaintza arrazoiengatik etxetik ateratzea, baina ez dakit poliziarri trona bat premiazko gaia irudituko zaion. Badaezpada, baimen bat eraman dut esanez erreportajeak egiteko zirkulatu behar dudala. Urduri jarri naiz dena den, txarto daramat-eta ziria sartu beharra.

Igandea da eta autobian apenas dagoen trafikorik. Lasaitasun apokaliptiko horrek are gehiago urduritu nau. Hirira sartu eta udaltzain-auto baten atzean itxaron behar izan dut semaforoa berde jarri arte. Bihotz taupadak azkartu egin zaizkit. Bidaia aprobetxatu dut lagun batekin alaben arropen trukea egiteko. Nire asmoa zen pitxer elektrikoan infusio pare bat prestatu eta bilera klandestino horrez apur bat gozatzea. Ez naiz kapaza izan. Onartu diot urduriegi nagoela eta Larrabetzura itzuli nahi dudala

lehenbailehen. “Lasai, gustorago arituko gara bideodeiez”, erantzun dit.

San Frantzisko auzoan dago *Pikara*-ren egoitza, eta han ez dira berriak ez poliziaren kontrola ezta auzokoen begirada akusatzaileak ere. Baina lehen kolektibo estigmatizatu batzuek pairatzen zutena orain orokortu egin da —ez neurri berean, noski, arrazializatuak baitira itxialdiaren koartadarekin poliziak auzoan jipoitutakoak—. Pastora Filigranak dio salbuespen egoera hau momentu ona izan daitekeela enpatizatu dezagun beti kriminalizatuak bizi direnekin, besteak beste top-manta saltzaileekin eta auzo periferikoetako ijitoekin: “Kalera ateratzen bazara delitugile zara kontrakoa frogatu arte, eta horrela bizi da jende asko egunerokoan”.

“Larrialdia ez da inoiz amaitzen eta normalizatu egiten da”, diosku Edward Snowdenek. Antzeko iragarpena egin du Auzoetatik Piztu Bilbok: “Salbuespena ez da sekula normaltasunera itzultzen, bere normaltasun propioa produzitzen du”.

Pribilegiatuak gara orain arte (pare bat manifestan baino) poliziaren eta auzo zelatarien beldur izan ez garenok. Ikusiko dugu zer gertatuko den “normaltasun berria” heltzen denean. ●



ANTTON OLARIAGA